

GURE INGURUKO ZAHARREI IKASITAKO ZENBAIT ATSOTITZ ETA ESAMOLDE

Agustin Mendizabal

Hauen artean, asko antzinako bizimoduari loturikoak dira, eta gaur egungo bizimoduarentzako balio gutxikoak, baina beste hainbat gizakiaren berezko izaerari lotuagoak daude eta horregatik edozein garaitan aplikagarriak dira.

Urteetan zehar nire inguruan entzun eta ikasi ditudan hainbat atsotitz eta esamolde dakartzat hona (gehienak Oiartzun eta Erreterian). Denonak baitira, denontzat eskura jartzea beharrezkoa iruditzen zait: uste dut guztion ondarea dela gure zaharren jakintza eta denoi dagokigula zaintzea. Gainera, hizkera adierazkor eta bizia nahi badugu geure buruak noizbehinka freskatzea ariketa sanoa iruditzen zait. Hala ere, hona ekarri ditudan atsotitz hainbat ez dira oso ezagunak, beharbada. Baina

Atsotitz eta esaera zaharrek beti erakarri izan naute, hitz gutxitan mezu zabalak emateko gaitasuna baitute; batzutan sakonak, praktikoagoak besteetan, zenbaitetan zorrotzak...



gure bailarako euskaldunen ahotik ateratakoak dira eta merezi du horiek gogoan edukitzea, horrela aldian-aldian erabili ahal izateko, edo okerragoa ez dena, haiek iradokitako gogoetetan murgiltzeko.

Esan dezadan ahozko euskararen arabera idatzitakoak letra etzanez idatzi ditudala, eta euskara batuan daudenak letra arruntaz.

1. LANERAKO ETA BIZITZAKO GAUZETARAKO JARRERARI BURUZKOAK:

“Axkar eta ongi usuak hegan”; (Oiertzunen ezaguna)
gure mugak ezagutu beharra gogorarazten digu.

“Ahal dana, aldra baldana”; (K. Z.)
“ahal dena egingo dugu” esaten baduzu, hau aditu beharko duzu, agian!

“Ardo txarrak mozkor ona”; (I. Z.)
debekuaren xarma?

“Bageneuka, bagenekike”; (J. M. M.)
hurrengoaren esanahi beretsua.
“Iruittukin ez da ikatzik itten” (“Irudituaekin ez da ikatzik egiten”). (F. L.)

Edota, modu barrokoagoan:

“Iriñik ez degu, esnerik bagenu, Otaola gañea jun da zartaiya eskatuta aiya ingo genuke” (J. M. M.)

“Egile txar, eragile on”. (J. M. M.)

“Alferra bi aldiz nekatzen da”. (J. M. M.)

“Bero dela galda!”; M. O.)
gauzak “berotan” egitea, hobe -“hozten” utzi baino lehen-.

“Esan nazan esan ez nazaten” (“Esan dezadan, esan ez diezadaten”); (J. M. M.)

“zozoak beleari” esaeraren parekoa.

“Ezer ez dagoen tokian eskuak garbi, eta dagoen tokian begiak erne”. (J. M. M.)

“Etxeko gauzak, etxean”; (J. M. M.)

hurrengoaren pareko:

“Bakotxak be' itxian atetzen ttu kontuk” “Bakoitzak bere etxean ateratzen ditu kontuak” (K. A.)

“Eskaillerak gotti-betti ibiltzeko iñak dia”
 (“Eskaillerak goiti-beheiti ibiltzeko eginak dira”)
 (M. J. T.)

“Gezurra esan nun Getaiyan, egiya nun ataiyan”;
 (J. M. M.)
 gezurtia aise harrapatzen da normalean!

“Urraki gaineko artzaina bezala, udan triste, laster
 negua zetorrelako, eta neguan pozik, ondoren uda
 zetorrelako” (J. M. M.)

“Nun da nere gogua, han da nere zankua” (“Non da
 nire gogoa, han da nire zangoa”) (M. O.)

“Han ere zakurrak hankutsik”. (K. M.)

Antzekoa da :

“Urrutiko intxaurrak, hobiak, berta' jun ta hutsak”;
 (J. M. M.)

“Hartuak emanak egin dik zaporea”; (J. M. M.)
 giza harremanen beharrezkotasuna
 azpimarratzen du.

“Zorrrak zor, lepoa lodi”; (J. M. M.)
 axolakabeari esaten zaio.

“Otsoa ardi-zai” (“Otsoa ardi-zain”); (J. M. M.)

pertsonengan aplikatzean, egoera ikaragarria adieraz
 lezake...

“Otsoak ez du bere haragirik jaten” (K. M.)
 “San Jose loriak, ondoren biño, aurretik hobiak” (ikus
 6. puntuan)

“Korpus euneko iya, uholdiak eaman” (ikus 6.
 puntuan)

“Harribiyur!”. edo “Hoi gezurra bada, harri biyur
 nadilla!”.

Interjekzio edo desafio moduko honek, Oiartzundik
 Irunerako bidean dagoen Andrearregiko (Anderrei)
 ermitako kondairan du bere jatorria, alegia, esaten
 zuena gezurra bazen “harri bihur nadila” bota zuen
 pertsona harenean. (J. M.)

2. JAIOTZA-HEZKUNTZA, OSASUNA, EZKONTZA, HERIOTZA...

“Haurrak hazi, eta nekeak bizi” (K. M.)

“Asko yan ta txarra ez, gutxi yan ta ederra ez”; (J. S.)
 haurrei jan dezaten esaten diete Goizueta aldean.

“Ibilliyan-ibilliyan, gustatuko gea”; (M. L. A.)
 erdi-behartuta hasitako bikote batek esana da
 (garai bateko kontuak!).

“Gazte ezkontza, aingeru ezkontza, zahar ezkontza
 deabru ezkontza” (G. M.)

“Gaixtuak nahi dun arte onan biziya”; (J. M. M.)

Txirritaren “Mundu hontako bizimodua” bertsoetan,
 berriz, “Haundi gaixtuak nahi duen arte, txiki onaren
 biziya”.

“Zaharrak heriotza segurua, gazteak ordu
 segururik ez” (J. M. M.)

“Haur jaio eta haur hil” (ezaguna)

3. EGOERA BEREZIAK:

“Astoa saldu, eta potxua erosi”; (A. A.)
 berdin dio, gauza bera baitira...

“Otsua aittatu ta otsua atetan” (“Otsoa aipatu eta
 otsoa atetan”);
 gaztelera ere bada: “Hablando del vil de Roma...”

“Errotan egon eta bidean presa”; (M. O.)
 denbora galtzen ibili ondoren, presaka ez ibili gero...

“Nun aillatu, han ostatu” (“Non ailegatu, han
 ostatu”); (M. O.)
 denok ezagutzen dugu inor, bere bidean doalarik
 erraz entretenitzen dena.

“Ez joan urrutira, ikusiko ez zaituztelako(an)”: (K. A.)
 herritik oso urrutira ezagunen bat topatzen
 dugunean sortzen den egoera.

"Ikusi al duzu Jesus jaiotzen? Ezta nik "Halako"-tzen": (J. M. M.)
norbaitek, egin beharreko edo agindutako zerbaiteketzen ez duenean.

"Berdin dio: burua harriz jo, edo harria buruz jo":

(J. M. M.)
gaztelaraz "total, patatas" esango litzatekeenaren pareko.

4. IZAEREN ADIERAZGARRIAK:

"Intxixua baino gaiztoagoa" (F. L.)

"Ura hilaren saltoak, ez dira hobeak" (M. L. A.)

"Haizia buruan ta ibilli munduan"; (J. M. M.)
kaskarin eta ganora gutxikoari aplikatzen zaio.

"Zuretik ezpala" (ezaguna)

5. BESTE ZENBAIT ESAMOLDE:

"Ez dut ur garbirik atera"; (I. A.)
ez dut ezer argitu, ez dut ezer lortu.

"Eungorri zekau" ("Egungorri zeukagu"): (J. M. M.)
egun txarra, dena gaizki ateratzen den horietakoa.

"Zakur beraska!": (J. M. M.)
kaka zaharra! edo zakurraren putza!-ren pareko.
Beraska, biguna ote?

"Hitzak hitza ekarri" edota "Hizpideak hizpidea ekarri": (M. L. A.)
"por cierto" edo "a propósito" gaztelarazko ordainak erabiltzen ditugu maiz, baina nik euskarazkoa nahiago...

6. EGURALDIA, EGUTEGIA, ETA ABAR:

"San Blas, kontu ume onaz"; (I. Z.)
hauxe medikuntza alternatiboa! Elantxobeko Miren Terese Etxanizi ikasia da. Bitxia gertatzen zaigu instrumentalaren erabilera hori.

"San Josik 'kartzen 'ttuzte konpittik', aurretik eta atzetik" ("San Joseek ekartzen dituzte konfiteak, aurretik eta atzetik") (P. A.)

"San Jose loriak, ondoren biño, aurretik hobiak"
("San Jose loreak, ondoren baino, aurretik hobeak")
(J. M. M.)

San Jose loreak, martxoaren hemeretzi aurreko edo ondorengo euri eta ekaitzak dira aurreko atsotitzak ere badioen eran, baina metaforikoki gauzak bere momentuan egin behar direla ere adierazten digu atsotitz honek.

"Korpus euneko iya, uholdiak eaman" ("Korpus eguneko ihia, uholdeak eraman") (E. G.)
gauza goiztiarregiak, landu gabeak eta ondorioz txarrak.

"Goiz gorri, arrats euri", edo "Arrats gorri, bihar eguraldi" (J. M.)

Eskerrik beroenak zuei: Inaxio Arbelaiz (I. A.) (Erbitti, Irun),
Filomena Lekuona (F. L.) (g.b.) (Iriso, Oiartzun), Arantxa Arrizabalaga (A. A.) (Oiartzun), Mañoli Odriozola (M. O.) (Oiartzun), Maria Luisa Aduriz (M. L. A.) (Oiartzun/Erresteria),
Ixar Zugarramurdi (I. Z.) (Oiartzun/Erresteria), Kristina Aizpurua (K. A.) (Oiartzun), Konsuelo Zabaleta (K. Z.) (Erresteria), Mari Jose Telletxea (M. J. T.) (Oiartzun), Garbiñe Mendizabal (G. M.) (Erresteria), Karmen Mendizabal (K. M.) (g. b.) (Erresteria), Edurne Goñi (E. G.) (g. b.) (Erresteria),
Joakin Mendizabal (J. M.) (g. b.) (Oiartzun), Juli Salaberria (J. S.) (Goizueta), Juanita Mujika (J. M.) (Oiartzun), Pepi Arruti (P. A.) (Oiartzun)... eta gogoan zuzen ez ditudan beste hainbati. Baina oroz gain, Jose Mari Mendizabal gure aita zenari (J. M. M.)!

2018ko maiatzaren 1ean.